

Axularren Itzala

Gurasoak ohoratzen omen ditu seme on baten ospe ta izen haundiak. Gure herriak sineste hori badu. Hori hala izanez, Axular, seme jator eta aipagarriaren omenaldian, Nafarroak bere burua ohoratzen duela esango nuke nik. Izan ere hala da. Nor da, odolekoen goratarrea egingo ez lukean gizona? Jatortasun pixkaren bat duenik ez, behintzat. Herrialdeak eta Huri-buruak famili haundi dira heuren gizon argien mereximendiak aitortzeko garaian.

Eskualdunokin gertatzen dena, halare, besterik da. Izatez, ez gara erraile, egile baizik. Nunbait irakurria dut, Akiles aipagarririk izan duela gure herriak; baina, Homero berri-emaileak ditugula eskas. Eta, hona orai ene poza! Ezin sinesturik bezala diodan aitortza : zor zion Nafarroak Axularri omenaldi hau. Eta egitekotan, ongi egin behar ziren gauzak : besoak zabalik hartu gaituen Nafarroako etxe nagusi hontan, alegia. Atsegin zait erraitea, hutsune larria betetzen ari gara jakintza mailako arazoetan. Ez da Axular ate haunditik sarraraztea, sartua bai da; hori ulertzeko adimena badugula adierazten diogu geroari.

Ez naiz ni «Gero» idazkiaz mintzatuko. Bada hortaz esanik, eta berriz ere, nik egin nezakean baino hobeki mitzatuko denik. Baina, Axular ez da hori bakarrik. Gure jakintsuekin askotan gertatu ez dena, Sara-ko erretora herri mailan ere sartua dugu. Axularrez mintzo zaizkigu ipuinak, eta mito lanbro bat sortua diote. Herri-jakintza maila hontan xurgatu nahi izan dut nik nere irakasbidea; etnologia aldetik, alegia.

Eskual Herriak bertze edozein herrialderen jokabidea jarraitu du bere ipuin eta erran zaharretan. Indar bi ikusten ditugu : egunoroko gertaerak izarretaraino jaso eta gorputz gabeko aipagarri bitxiak bezala zabaltzeko joera, alde batetik; eta bere amets guzien emaitza lortu ezina, ezur eta aragizko norbaiti itsasi nahia, bertzetik. Bigarren joerakoa dugu Axularren kasua. Gertaera miresgarriak lotzen dizkio gure herriak Sara-ko apez ospe-tsuarí. Ez dakigu, bere nortasuna mito mailara jauzia dela erran, ala mitoa bere neurrira ekarria. Dena dela, ikusi dezagun erran zaharrak diotena.

Deabruaren eskolan. — Oso zabalduak dira gure artean deabruaren ikasle izandakoen ipuinak. Salamanaka-ko harzuloa da aipatuena. Alkala aldean ere izan behar zuen besteren bat. Ikastetxe nagusitara gabe, gure

JOSÉ M.^o SATRÚSTEGUI

menditan ere bagenituen leze hoietako zenbait : Zugarramurdi-n eta Sara-n ezagunenak.

Ikasketa merkea izan ohi zen, alde batetik; diru ordainketarik ez zuten izaten. Irakaslea ifernuko arduraduna bai zen, gizonak nahi zituen saritzat. Ikasle talde bakoitzetik bat beretzat gelditzeko hitz harturik hasten zituen ikasgaiak. Taldeak ere ez ziren beti berdinak gertatzen; zazpiko kontua bada ipuinetan, eta hirukakoa ere bai. Axular beti hiruko talde txikian ikusten dugu. Arrisku gehiago.

Ikasle taldean bazen norbait besteak baino argiagoa. Bere gain hartuko zuen azken joateko arriskua eta berari lotuko zitzaion, lotzekotan, irakasletzat zeukatzen deabrua. Beste biak aurrez bialdu eta lasterka izaten zen ateratzea. Itzalarekin uzten zuen honek etsaia.

Axular dugu ipuin batzutan deabruari joku xarra egingo dion gizon bizkorra. Hori dela ta, itzalik gabe bizi behar munduan. Ifernukoarekin zer ikusia duten guzien ezaugarria da itzal falta hori. Norbaiten itzala berekin duenak, mendean du itzalaren nagusia. Halare, gizona gehiago da bere irakasle hura baino. Oztopoak ezarriko dizkio etsaiak, baina besteak sumatu. Behin batez artzai bat joan omen zitzaion Axularri gerriko gorri ederra eramaten. Bildur zen deabruaren gauza izango zen eta, leze ondo bateko zugaitzari inguratzeko agindu zion. Azkeneko itzuliarekin batera zainetik atera ta erori omen zen zugaitza zuloan.

Burubide honek badu bere ardatza. Bazezkien gizonen jakintza guziak eta deabruarenak, alde batetik. Ifernukoaren asmoak ezagutzen zituen, beraz, gizonenak bezala. Aztikeria eta magia guzia indar izkutuen mailan sudurra sartzeko kontua da. Ezagutzen denetik ezin ezaguturako bide hortan bada bitarteko bat : aztia, goikoekin hartu-eman estuan dagoen gizona. Eskatzen dena iristeko erabiltzen diren tresnak azti-butun eta magiakeri-zkoak izaten dira.

Euskal Herriko azti hauek apezak ditugu gehienetan. Herriaren sineste modu hortan izenak aldatzen dira kristautasunarekin; ez jokabideak. Indar izkutuen ordez Jainkoa, eta bitarteko aztiaren lekuan apeza sartzearekin dena egina. Badira eliz-butunak, otoitz ttipi eta esames bitxiak. Sinestearen ordez, sineskeriak. Zaharra da hau munduan. Apezak badu, Kristoren izenean deabrua menperatzeko gai den Gurutzea, ta Jesus-en izen haundia. Sakrametuen banatzale da, beste alde. Hortik datorkio, beste azti guziak baino indartsuago izatea. Hoiekin lekutzen ditu etsai guziak.

Etsai guziak aizatzeke on zen Axular herrikoiak izan zuen, halare, bera baino haundiago norbait munduan. Jaun Benat omen zen berarekin Salamankako har-zuloan ibilitako bigarren laguna; eta Arruit hirugarrena. Jaun Benat Bera-ko erretor egin zuten, Arruit Oiartzuko, eta Axular Saran egon zen.

AXULARREN ITZALA

Bera-ko apeza beste biak baino bizkorrago nunbait, eta ez zen ondo ikusia izaten. Nolabait menperatu nahian zebiltzen lagunak. Oiartzura deitu zuten behin elkarrekin bazkaltzeko. Itzalarrekin batean, anka bateko aztala galdua zuen, deabruak ezpataz jota, Salamankako gela beltzean.

Deia ikastean, mutila deitu eta zaldia prestatzeko agintzen dio, bizkarreko idi larrua ahantzi gabe. Bazkariak bere ondorea bazekarkela ikusten bai zuen... Eta halaxe gertatu. Etxe aldera abiatu orduko, nun ikusten dituen kopeta gaiztoko laino beltzak bere aldera etortzen. — Bildur nuena! esan eta bertan gelditu da. Zaldiarekin ostatura joatea agintzen dio mutilari. Idi larrua bizkarrean duela Oiartzuko apezaren sagardian sartu da Jaun Benat, eta bere gainera dihoaz barazikor guziak. Latza izan omen zen erauntsi hura; gogoan izateko modukoa. Arruit jaunaren sagardian ez omen zen zuztur bat onik gelditu. Idi larruari esker, Berakoak berriz ezer ez. Geroztik, apez lagunengandik trabarik ez omen zuen izan. Harritu zituen, behin betiko.

Nor-gehiagoka bat da beti magia kontua; indarkeria. Baina, bada bizian oren bat indarrak alde batera utzi eta, bere egite onez bakarrik gizona balia ditekeana : heriotza. Eta heriotzari bildur haundia zioten, herriaren susmoz, deabruaren eta Jainkoaren hariak eskukatu zituzten eliz-gizonek. Beren salbamendua arriskuan ikusten zuten. Itzalaren jabe izanez bakarrik ihes egiten ahal zioten ifernukoari. Eta orai dator azkeneko jokua : apezak zirenez, meza ematen zuten, eta meza erdikoan ikusten zuten bakarrik heuren itzala. Une hortan hiltzea nahi izaten zuten, beraz.

Hiltzalaren bat behar eta, sakristauari agindu omen zion Axularrek meza erdikoan labana sartzeko. Gogorra, baina ipuinak ez dira bide erdian gelditzen; magia lerroan iragan bizi bati, era bereko heriotza itsasi behar, nahi eta ez.

Aurrez agindua izaten zuten bihotza atera ta, haga luze baten goimuturrean ezarteko. Beleak eramatea marka txarreko gauza; deabruak bereganatua zuelako ezaugarria zen. Pika edo karkar nabarrak bereganatzen bazuen, garbitokian zen apeza. Usoa jabetzen bazen, berriz, zeruan sartua. Eta zer esanik ez, beti usoa zen bizkorrena. Axularren arima ere usoak eramana du; zeruan da, beraz, eskual idazletan haundiena.

Nor edo nor izango da hemen, behar bada, omenaldi gain mailakoan ipuinekin etortzea festari dagokion neurriko gauza ote den ala ez, burura etorri zaionik. Ipuin eta herri-jakintza azken mailako gauzak direla uste dutenak izaten dira bazterretan. Kendu hori eskual herriari eta zertan geratzen gara?

Axularren egunean aipatu beharra zen bere izen onaren itzal haundiarekin batera, bere herri mailako itzal-eza. Jakintsu haundi zelakoarekin batera, herri xeheak dioena. Gizona eta mitoa.

JOSÉ M.ª SATRÚSTEGUI

Mitoaren ikasgaia hauxe da : Axularren nortasun berexia. Herriaren ahoan jakintsu haundia. Deabruaren eta gizonen jakintza guziak ikasiak zituena gizona.

Urdazubiko idazle ospetsuari, azterle burutsu eta goi mailako zagokion, alde batetik. Eta Nafarroako seme haundiari gure erresuma zaharreko Jauregi Nagusia. Ots; idazle hoberenari, Villasante Euskaltzaindiko zuzendari jakintsua, eta Urdazubiko seme haundiari, Diputazioko Jauregia. Eta hala egin da. Ohorez, jaun-mailan ordaindu du Nafarroak bere aspaldiko zorra. Noizko, orai, Iruñen Axularri karrika baten izena ematea? Gutxiagoren batek izango du berea.

* * *

Navarra cumple hoy con el honroso deber de rendir homenaje a la figura de un hombre ilustre de su tierra, Pedro de Axular, el autor cimero de las letras vascas.

Nuestro pueblo tiene sus principios y piensa que un padre participa del honor de sus hijos. Yo diría que Navarra se honra a sí misma al honrar a este su preclaro hijo. Es nuestro máximo Organismo provincial el que ha tomado sobre sí el quehacer de llevar adelante este reconocimiento y en el marco destacado del Salón del Consejo Foral. A nosotros, por otra parte, nos cabe el alto honor de participar en el acto. Soy consciente de que saldamos una vieja deuda, que por encima de pequeños horizontes de miras raquílicas, toda persona medianamente culta tendrá que reconocer como un acierto. La cultura está por encima de todos los oportunismos. Así lo han sabido entender hoy nuestros máximos rectores. Para ellos mi felicitación como simple ciudadano navarro.

Axular, además de escritor máximo de nuestras letras, es hombre popular. Al decir esto trato de fijarme en el recuerdo que las tradiciones populares le han dedicado. No es el terreno histórico, sino el folklórico el que me ocupa. Mitos de gran difusión tienen a veces la virtud de hacerse palpables, próximos al hombre que los concibió, encarnando al socaire de personajes históricos. Es una manera de introducir a éstos en la región etérea de los mitos. Travase.

Nuestro protagonista, descuella en el lenguaje popular por sus conocimientos. De ahí nace su estrella legendaria. Conocedor de toda la ciencia humana a través de las aulas oficiales de Salamanca, siente hambre de mayores conocimientos y se matricula en la escuela del diablo, en la Cueva de Salamanca. Otros hablan de la sima de Sara, e incluso del antro de Zugarramurdi. En Salamanca se hace acompañar de dos compañeros más, pirenaicos también ellos y navarros como él.

AXULARREN ITZALA

El precio de la enseñanza era adecuado a las apetencias del maestro y uno de ellos debía quedar en posesión plena y definitiva del demonio el último día de clase. El ingenio de Axular burló al diablo, haciendo que tuviera que conformarse con la sombra del protagonista. Por eso Axular vivirá sin sombra a lo largo de su vida.

El enemigo le prepara emboscadas que él sabe descubrir. Por algo sigue siendo el sabio que domina todos los conocimientos humanos y diabólicos. Sólo un hombre puede con su ingenio; Jaun Benat, compañero de estudios y mago de máxima nota reemplaza al de Sara, en algunas leyendas. Hay un juego divertido de chascarrillos entre el párroco de Vera, por una parte, y los de Oyarzun y Sara, por otra.

El párroco de Oyarzun en connivencia, sin duda, con Axular que lo era de Sara, invita a un almuerzo a Jaun Benat. Receloso de tan graciosa convocatoria el de Vera, llama a su criado y le manda ajaear su caballo. No se olvida del espaldero de piel de buey.

De regreso ya para casa, después de la refección, densos nubarrones asoman amenazadores en el horizonte. Era el trasfondo de la fiesta; lo que temía. Queda en la posada el criado con su caballería, mientras el ingenioso sacerdote, escudado en su espaldero de piel de buey, se adentra en el precioso manzanal de planta joven, que tenía su anfitrión. Dicen que no quedó sana una sola planta y Jaun Benat, una vez más, salió airoso de la emboscada. No volvieron a molestarle sus compañeros.

La magia resultaba un juego basado en el equilibrio de dos fuerzas encontradas. Lucha. Entraba en juego, no sólo la vida, sino la muerte misma, así como el destino final de los protagonistas. Axular temía a la muerte, lo mismo que sus compañeros. No estaban seguros de la calificación moral de sus argucias. La ausencia de la sombra es lo que más quebraderos de cabeza le proporcionaba. Era la fianza de un viejo contrato incumplido, que el diablo se reservaba. La posesión de la sombra suponía el dominio sobre la persona a quien pertenecía.

Por suerte para el de Sara, los recursos religiosos seguían siendo eficaces y el celebrante disponía de su sombra durante la Consagración. Plenitud apetecida. Ordena a su fiel sacristán le mate en ese preciso momento; encomienda que cumple el servidor, no sin antes haber titubeado y cedido en los primeros intentos.

Magia blanca. Cristianos en definitiva, todo termina bien en la prueba póstuma de exponer su corazón en la extremidad de un poste al aire libre. Acude el cuervo, emisario del diablo y pugna por arrebatarlo; pero es la paloma la que, por fin, consigue llevarse consigo.

Hasta aquí el testimonio popular a través de la leyenda. Queda en pie la fama de su ciencia y la silueta de una vida honrada. El acto que hoy

JOSÉ M.^a SATRÚSTEGUI

celebramos es el reverso de la medalla. Los hombres de ciencia llegan a la misma conclusión que la tradición popular, a la hora de estudiar con rigor de muchas horas de trabajo la obra del maestro.

Es el propio Presidente de la Academia de la Lengua Vasca quien ha realizado el meticuloso trabajo de cotejar, una por una, las formas y flexiones de la obra maestra de Axular, así como el alcance de cada palabra. A tal señor tal honor.

Mi felicitación más efusiva a la Excma. Diputación Foral de Navarra por el empaque y tono de gran fiesta en que ha centrado este acontecimiento cultural. Refleja la exquisita sensibilidad de nuestros máximos rectores al exaltar en el marco más adecuado, la figura de uno de nuestros valores culturales más representativos.

Nuestro agradecimiento de navarros al autor del Diccionario, P. Villasante, por la meritoria e ímproba labor que supone la atención que ha dedicado a la obra de nuestro paisano.

Sólo cabría esperar ahora que Pamplona, la capital donde encuentran honrosa acogida las inquietudes más nobles de nuestra tierra, responda a esa digna trayectoria, dedicando una calle a Pedro de Axular, autor de G e r o.

José M.^a SATRÚSTEGUI